# 4. atala.
# Telebistagintzaren panorama

Telebistagintza konbentzionala eta gai baten inguruan eta xede-talde zehatzagoa dutenak batera bizi dira. Lehenak, askotariko eskaintza eta konpetentzia bortitzeko testuinguruan edukiak, formatuak eta ordutegiak landu behar ditu, ahalik eta audientzia-zatirik handiena irabazteko. Segmentazio sozio-demografikorako oso egokia ez denez, orotariko telebistagintza horrek ahalik eta audientziarik handiena eta zabalena bilatzen du, programazio-teknika desberdinak erabiliz. Aldiz, telebistagintza berezituak, aunitz mugatua du bere xede-taldea eta horrentzako pentsatua duen eskaintza. Genero bakarreko edukiak pantailaratuz, xede-taldea kontaktatu nahi du, hari ondoen datorkionean. Horretarako, errepikapenen kudeaketa oso garrantzitsua da programazio-taulan.

## 4. ATALA: TELEBISTARAKO PROGRAMATZEN

1. Programaziogintza telebistan
   - Hitz gutxitan
   - Errotan
2. Orotariko programazioa eraikiz
   - Oinarriak jarriz
   - Audientzia erakarri eta bideratu
   - Plangintza-epe gogoangarrienak: ikasturtea, astea, eguna eta ordu-multzoa
3. Telebistagintza berezitua
   - Berezitasuna eraikiz
4. Bibliografia
5. Gehigarriak
   - Intereseko webguneak
   - Multzokako programazio-taula telebistagintza berezituan
   - Audientzia gehieneko (*rating*aren < %25) tarteen ordu-kokapena eta luzera hainbat herrialdeetan
   - Programazio-teknika erabilienak
   - Hainbat kanalen programazio-taulak

# *1. PROGRAMAZIOGINTZA TELEBISTAN*

## *1.1. Hitz gutxitan*

Monique Dagnaud (1992) parafraseatuz, programatzaileak telebista-enpresaren ardura kulturala bereganatzen du. Kanalaren ildo editorialaren definizioan hartzen du parte, erosketak gainbegiratzen, produkzio-inbertsioak bideratzen eta plangintza baten barruan kokatzen ditu, eta bere garapenean ere hartzen du parte. Baina, guztiaren gainetik, programen taxuketaren estratega eta taktiko bat da.

Programatzailearen lana, eta programaziogintza bere osotasunean, abiapuntua eta emaitza dira aldi berean.

Abiapuntua den neurrian, Cortés-ek (1999: 95-96) aipatzen duen programazioaren filosofiarekin eta kanalaren ildo editorialarekin bat egin behar du programazioak. Kanalaren barru-barruko galderei erantzunez ekin beharra du: nor gara, zer nahi dugu, nolako baliabideak ditugu, nolakoa dugu joko-eremua eta -arauak eta zein izango da gure estrategia.

Contreras-ek eta Palacio-k (2001: 158-162) “plangintzaren” eta “aplikazioaren” *errotak* diseinatu zituztenean, kezka bera zuten buruan, zelan aztertu programazioaren bikoiztasun hori, programazioa ibilbidea eta helmuga izatearena, alegia.

Kanalaren gaur egungo izaeraren eta lortu nahi duenaren arteko bidean kokatzen da programazioa, kausa eta ondorio, hurrenez hurren.

Programazioa, emaitza ere bada. Produkzio-lan baten ostean gauzatua eta merkaturatua testuinguru zehatz batean. Eta produktua den neurrian, beste batzuekin lehiatuko da oparoa den telebista-azokan. Produktu horrek berezkoak izango ditu, gainera, kanalaren marka-irudia, publikoaren pertzeptzioa, *background* kulturala eta medioarekiko jarrera, besteak beste.

Programazioak eta programazio-taulak, hain ohikoa dugun telebistaren eskaintza direnez, egin berria izan behar du eta, aldi berean, betiko kutsuz hornitua. Alda-korra, eguneratua, momentuan-momentuko beharrei eta gustuei erantzunez egina eta, batera, ezaguna, betikoa, jakina eta espero daitekeenaren ildoan gauzatua.

### *1.2. Errotan*

Lerro batzuk lehenago aipatu dugun modura, bere zereginean, programaziogintza hasiera-puntura itzultzen da behin eta berriro; “plangintza” eta “aplikazioa” errotak izan balira bezala. Programaziogintza xehetu ahal izateko, interesgarriak suertatzen zaizkigu Contreras-ek eta Palacio-k proposaturiko lan-eremu horiek.

Plangintzaren errotari dagokionez, eta autore horiek eginikoa apur bat egokituz, hauek dira bere katebegiak:

| **Zer garen** | **Zer izan nahi dugun** |
|---|---|
| – telebista- eta publizitate-merkatuan dugun lekua<br>– zenbateko audientzia eta nolako perfilekoa<br>– aurrekontua eta finantzabideak | – kanalaren helburu zehatzak<br>– epeak markatu |
| **Zein den gure eskaintza** | **Nahiko genukeen eskaintza** |
| – programazio-taula, generoak, formatuak...<br>– artxibategiaren tamaina eta kalitatea<br>– sinaturiko kontratuak eta erosketak | – programazio-taula, generoak, formatuak... |
| **Gaur egungo kostua eta finantzabideak** | **Plangintza berriaren kostua eta finantzabideak** |

Bestalde, aplikazioaren errotak ondoko pauso hauek ditu:

| |
|---|
| **Garen eta izan nahi dugunaren arteko aldea** |
| **Bien arteko kostu-desberdintasunak egokitu** |
| **Bilakaeraren pausoak definitu eta epeak markatu** |
| **Programazioaren oinarriak jarri: ordu-multzokako helburuak** |
| **Hornibideak zehaztu:**<br>– artxibategia gorpuztu<br>– barne- zein kanpo-produktuak bideratu |
| **Programazio-taula zehatza egin** |
| **Audientzia-datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertu** |
| |

Programatzearen nondik norakoak azaltzen dituen atal honetan, orotariko telebistagintza eta berezitua, bakoitza bere aldetik landuko dugu. Oinarrian, ikus-entzuleengan pentsatuz eginiko eskaintza-antolaketa da programazio-taula, eta horretan bat datoz telebista-mota biak, hala ere, telebistagintza berezituan xede-taldea eta eskaintzaren osagaiak propio jorratu beharreko eremuan agerian uzten dituzte. Hasieran, telebistagintza konbentzionala aztertuko dugu, geroko utziz berezitua.

## 2. *OROTARIKO PROGRAMAZIOA ERAIKIZ*

### *2.1. Oinarriak jarriz*

Irratigintzarako programazioaz ari den atalean esaten den modura, medio bakoitzaren merkatuaren egoera sakon-sakonean ezagutzea zeharo beharrezkoa da, merkatu horretan kanal bakoitzaren lekua definitu ahal izateko.

Gaur egungo telebistagintzaren testuinguru lehiakor, finko, aldaketetarako motel, garesti eta zailean hiru dira har daitezkeen jarrerak:

- **Aurrez aurrekoa**: momentu jakin batean nagusi den kanalaren aurkako norgehiagokan sartzea esan nahi du. Bera gainditzea bilakatuko da helburu bakar modura: xede-talde eta ordu-multzo guztietan. Irabazle bakarreko lehiaketa da, eta oso garesti ateratzen zaio txapela eskuratu nahi duenari. Jarrera baztertzailea da.
- **Osagarritasuna**: Telebista-merkatuan kanal bakarrarentzako baino leku gehiago egon daitekeela erakutsi nahi du. Kanal bakoitzak, bere merkatu-kuota, xede-talde eta multzo-orduak definitzea eta zaintzea dakar. Programa-eskaintzetan alternatibak bilatzean datza gakoa: audientziaren zati batek genero bat ikusten duenean, besteentzako gustukoa izan daitekeen beste genero bat pantailaratzea. Fronte guztietan baino areago, zatikako lehia da. Lehiakide bat baino gehiago egon badaudela onartzen du.
- **Berritzailea**: lehiakide indartsuenen taldean sartu ezinean, xede-talde txikiagoak bilatzen duen programazioa da.

### *2.2. Audientzia erakarri eta bideratu*

Bi izaten dira programatzailearentzako zeregin nagusienak: ahalik eta ikus-entzule gehien erakartzea —populazio osokoa ala, gero ikusiko dugun modura, xede-talde zehatzekoa— eta telebista-saioak eskaintzea, norberaren kanalean ahalik eta denbora gehien egon daitezen.

Lehenari dagokionez, audientzia potentzialarekin kontaktuan jartzea eta eraiki den programa-eskaintza horren berri ematea dira lortu nahi izaten direnak. Horretarako, oso komenigarria izaten da ikus-entzule potentzialei buruzko informazio sakona edukitzea (zenbat eta nolakoak diren, denboraren erabilera, telebista-kontsumoa, balorazioa, gustuak...). Gainera, hain oparoa den telebistagintzaren merkatuan, norberaren kanalaren eskaintza ezagutarazteko teknikak ikasiak beharko ditu izan.

Alferrikakoa litzateke, esaterako, xede-talde gisa definitu den jendearentzako programazio berezia prestatzea eta pantailaratzea lanean, lotan edo kalean ari den ordutegian eta, modu berean, indarrak galtzea litzateke, ikusiko lukeen programazio hori emititzen denik ere ez badaki.

Esan bezala, audientzia potentzialak telebista noiz ikusten duen —edota ikusteko moduan dagoen— eta beretzat pentsaturiko programa-eskaintza jakinarazteko teknikak ezagutu beharko ditu programatzaileak. Gauzak ondo eginez gero, eskaintzak eta kontsumoak bat egiten dute, eta telebistarekiko erlazioa sozialki barneratu egiten da.

Albistegiek bereziki ondo betetzen dute mugarri-lan hori. Mundu guztiak daki bazkalostean eta iluntzean albistegiak daudela, egunero, ordutegi jakin batean. Informazioarekin dauden “hitzordu” horiek zeharo ezagunak, sozialki oso zabalduak eta, areago, ohitura bilakatu dira.

Albistegiak, denbora-erreferentzia eta erloju-kolektiboaren lana betetzeaz gain, programazio-taula artikulatzen hasteko oinarri sendoak dira programatzailearentzako. Izan ere, eguneko programazioan, albistegiek bizkarrezurra osatzen dute: gainontzeko programei eutsi eta bakoitzari bere lekurako eta iraupenerako markak jarriz.

Programazio horizontala aipatzean, hori adierazi nahi izaten da: aste osora eta ordutegi berean kokatzen diren programa erreferentzialak sortzea eta audientziafidelizatzaile gisa funtzionatzea.

Ez dira albistegiak audientziarekin lotura hori lortzen duten bakarrak, baina bai zabalduenak eta erabilienak. Edozelan ere, TVE 1ren bazkalosteko folletoiaren bidez edo TVE 2en dokumentalak erabiliz, helburu berbera lortu gura izaten da, programazio-mota edo saio zehatz bat egunerokoan sustraitzea.

Programazio horizontalak —*stripping* edo *de tira* direlakoak— programak ezagutaraztea eta hitzordua egunerokotzea izaten du helburu.

Fikzioari dagokionez, teknika garestia eta zaila izaten da, kapitulu-kopuru handia eskatzen duelako. Astean bost atal dituen produkzio gutxi izaten dira, barne-produkziokoak eta kanpokoak, arrakastatsuak edota espektatiba altukoak, eta merkatu-prezio altua izaten dute, gehienetan AEBn ekoitziak direlako. Prezioz eskuragarriagoak suertatzen dira, ordea, mila aldiz pantailaratutako serieak eskaintzea: “Fresh Prince of Bel Air” edota “The Bill Cossby Show”, adibidez.

Ordutegi eta programa zehatz batzuen arteko sinbiosian oinarritzen denez, fruituak epe ertainera eta luzera hobeki ematen dituen teknika da.

Programazio horizontalaren familikoa izanik, nortasun berezia du “xake-taula” deritzonak. Genero bereko programak erabiltzen ditu audientzia fidelizatzeko teknika modura. Lanegunero eta ordu berean, genero bereko programa desberdinak kokatzen ditu —fikziozko serieak izaten dira erabilienak—, xede-taldekideek kanal horri begira egotea eguneroko hitzordua bilaka dezaten.

Behar izaten den kapitulu-kopurua ez da hain altua, eta programatzaileak produktu-eskaintza zabalagoa du merkatuan. Hitzordua eta edukia (generoa, kasu honetan) fidelizatzeko bidea luzatu egiten da, denboran. Gainera, programazio-taulan kokatzen diren saio guztiek ez dutenez berdin jokatzen arrakastari dagokionez, desorekak sor ditzakete.

Azpiatal honen izenburuan ("Audientzia erakarri eta bideratu") eta lehen lerroetan aipatu dugun modura, tradizioz edo momentuan momentuko publizitate-kanpaina on bat egin delako lortu den ikus-entzule multzo hori mantentzea izaten da, programatzailearentzako bigarren helburu nagusiena. Horrek dakar programazioaren ikuspegi bertikala.

Programa bakoitzaren edukien baina baita ere programen arteko etenen, iragarkien eta promoen arteko lotura eta jarraikortasuna da lortu gura izaten dena. Programen kokapena, saio bakoitzaren iraupena eta publizitate-etenak ondo artikulatzea da arrakastaren gako.

Programa batetik besterako audientzia-transferentzia hori, fluxu hori, manten dadin, asko izaten dira erabiltzen diren teknikak. Hemendik aurrera, programazio bertikalaren teknika horietariko garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Multzokako (*Block programming/Blocking/Stacking; por Bloques*) programazioak, esaterako, oso barneratuta dauka ikuspegi bertikala. Izan ere, xede-talde bertsua duten programa desberdinak kokatzen ditu segidan, audientzia mantentzeko asmoz. Ardatz bertikaleko programazio honek badu azpieredu bat, *Aging the demos* izenekoa: multzoka programaturiko saioen ordena erabakitzerakoan kontuan hartzea, esaterako, gauez orduak aurrera doazen neurrian audientziaren adinak gora egiten duela.

Lokomotora (*Lead-in; Punta de lanza*) delakoaren bidez, programarik indartsuenak ordu-multzoaren hasieran kokatzen dira, eta, horrela, audientzia-fluxua bere puntu altuenetik hasten da. *Prime-time*aren hasiera, esaterako, oso garrantzitsua izaten da ondoko minutu luzetan zer gertatzen den erabakitzeko. Teknika honekin batera erabiltzen den beste batek dio ordu-multzoaren hasiera —albistegia, kasu gehienetan— konpetentzia baino minutu batzuk lehenago hastea oso komenigarria izaten dela.

Kanpin-denda (*Tent poling; Tienda de campaña*) deritzon teknikaren abantailen artean dago, erabat sendo eta arrakastatsua den programa baten gerizpean (aurretik eta atzetik) berriak edota hain ospetsuak ez direnak koka daitezkeela eta haren errentagarritasunaz profitatu. Audientzia handiko programek bere inguruetara ere jendea erakartzen dute, eta, bide batez, berriagoak diren programak ezagutarazi. Arrakastaren aterpe-efektu hau hobeto ematen da iraupenez laburrak diren saioekin.

Hamaka (*Hammocking; Hamaca; Hamac*) izenaz ezaguna den teknika honek, bestalde, erabat tinkotuta dauden bi programen artean berria edota hain arrakastatsua ez dena kokatzen du. Egunean zehar eta *prime-time*an ere erabiltzen den programatzeko sistema honen bidez, lehendik ospetsuek diren saioek babesa eskaintzen diote ahulagoa denari. AEBn teknika honek berebiziko erabilpena du, hango *prime-time*an, esaterako, saio laburragoak eta, beraz, kopuruan gehiago egoten direlako. Europan, aldiz, Hamaka gehiago erabiltzen da egunean zehar eta programa zaharrak/berriak eta ospetsu/ahulak kobinatuz makalagoak direnei aterbea eskainiz.

Duplexa (*Back to back; Duplex; Duplex*), nagusiki fikziozkoetan aplikatzen den teknika honek programa beraren bi atal, bata bestearen segidan kokatzea ditu, lehenaren audientzia bigarrenera garraiatzeko asmoz.

Bi atalek ez dute zertan berriak izan, eta, gehienetan, estreinuko bat eta aurrez emititurikoak tartekatu egiten dira. Bi atalen ordenazioa egiterakoan, kontuan hartu behar da zein den helburu nagusia: indartsua den lehenetik bigarrenera audientzia garraiatzea, ala bigarrenean lortzea audientzia-pilaketarik handiena.

Fikziozkoak ez diren saioetan, errekurtso errazena programaren iraupena handitzea izaten da. Modu horretara, aurrekontua gehiegi puztu gabe, programazio-tartea zabaldu egiten da, eta audientzia-maila bere horretan mantentzeko pausoak ematen dira.

### *2.3. Plangintza-epe gogoangarrienak: ikasturtea, astea, eguna eta ordu-multzoa*

Telebista-programaziogintzak, bere zereginean, denbora-epe desberdinak erabiltzen ditu. Guk, azpiatal honetan, zabalenetik zehatzenerako bidea egingo dugu.

**Ikasturtea**

Epe luzeko edo ertaineko ikuspegi estrategikoa baino gertuagotik (ikus 11. atalaren bigarren azpiatala), eta urte naturala bera baino sarriago, ikasturtea izaten da programaziogintzan oso erreferentzia erabilia.

Telebisten balantze ekonomikoak eta finantzarioak eta, baita ere, audientzia-ikerketen urtekarietarako urte naturala izaten da maiztasunik arruntena, baina badira kanpo gelditzen diren beste batzuk. Garrantzitsuenak, usadio sozialekin zerikusia dutenak.

Irailak, oporren bueltan, ikasketen eta lanerako itzuleraren zikloa zabaltzen du, eta bere baitan populazioaren gehiengoa sartzen du.

Ikasturteak, irailean hasi eta ekaina bitartekoak, eguneko denboraren erabileran (lana, ikasketak, etab.) eta telebista-kontsumoari dagokionez ere, nolabaiteko homogenotasuna markatzen du. Bederatzi hilabete horien ostean, udako zikloa zabaltzen da, desberdina oso, eta ez bakarrik eguraldiari dagokionez.

Bederatzi gehi hiruko ikasturteak, programatzaileentzako bi epe oso desberdinak zedarritzen ditu.

Lehenak, irailetik aurrerakoak, telebistaren kontsumo-ordu altuena markatzen du eta, aldi berean, publizitate-inbertsiorako eperik garrantzitsuena (http://www.infoadex.es eta http://www.marketingdirecto.com).



| | Urt. | Ots. | Mar | Apir | Mai | Ekai | Uzta | Abu | Irai | Urri | Aza | Abe |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 224 | 226 | 211 | 197 | 205 | 198 | 174 | 149 | 191 | 221 | 221 | 222 |
| E.E | 236 | 239 | 225 | 213 | 208 | 198 | 176 | 165 | 203 | 224 | 235 | 233 |
| E.F. | 226 | 219 | 204 | 196 | 194 | 180 | 196 | 170 | 189 | 210 | 223 | 222 |

Bigarrenean, kontrara, audientziak behera egiten du, eta publizitate-inbertsioak urteko unerik apalena izaten du telebistan.

Aldi berean, telebista-industriaren ikuspegitik begiratuta, produkzio- (kapitulu-kopurua, amaiera-data, etab.), komertzializazio- (kontratuak, pase-kopurua, nazioarteko azokak, programazioen aurkezpen publikoa, etab.) zein pantailaratze-egutegia ikasturtearena izaten da.

### Urtaroa

Urteko plangintza taxutzeko, tradizionalki, AEBn, lau dira definitu izan diren urtaroak (Eastman eta Ferguson, 1997: 107-110). Lehenak (*first season*), irailaren hasieratik aurrerakoa, ahalik eta proiekzio mediatikorik handiena bilatzen zuen, eta bertan *show* eta serie berriak aurkezteko erabiltzen zen. Bigarrena (*second season*), gabonetatik bueltakoa, lehen galbaetik pasatzea lortu zuten programa berriek osatzen zuten. Hortik aurrerakoa, udaberrikoa, kapitulu gutxiko serie berrien estreinaldirako erabiltzen zen, hurrengo denboraldian lekurik lortuko ote zuten jakin nahian ari ziren programak sartuz, hain zuzen ere. Eta azkenik, errepikapenen,

aurrekontu txikiko entretenigarrien eta artxibategiko errekurtso atenporalen aroa irekitzen zen; telebistaren kontsumo-mailarik baxuena zuena, bestalde: uda.

Hala ere, badirudi munduko merkatu gehienetan eta kanalen arteko lehiakortasunak hartara behartuta, aro bakarra uztartu dela, hots, irailean hasi eta udako oporren artekoa. Etenik gabeko bederatzi hilabeteko urtaroak programen aurkezpena eta desagerketa lerrokatzen ditu, atsedenik gabe. Horrek, besteak beste, ekoitzi eta "sinatzen" diren gutxieneko kapitulu-/programa-kopurua gutxitzen du, nabarmen. Lehen, fikziorako, gutxieneko 13 kapitulu-kopurua zen erebiltzen zen neurria; gaur egun, audientzia-emaitza txar batek programazio-taulatik berehalaxe desagertzea ekar lezake.

### Astea

Audientzia-emaitzetarako, hilea erabiltzen bada ere, astea da, zalantza izpirik gabe, programazioa periodizatzeko baliagarriena. Izan ere, programazio-taula bera irudikatzen denean, zazpi eguneko erreferentzia da eskaintzen dena. Programatzailearentzako denbora-epe oinarrizkoena da, gero, bere baitan programak eta ordu zehatzak kokatu ahal izateko.

Astean, inon baino hobeto aurkezten dira programazioaren oinarriak (Cortés, 1999 eta Contreras eta Palacio, 2001) eta fideltasuna helburu duen programak emititzeko antolaketa horizontala.

Hala ere, asteak bi zati oso desberdinak ditu, eskaintzari eta kontsumoari dagokionez. Ondoko taulan ikus daitekeenez, igandeko *prime-time*tik aurrera, eta ostiraleko *prime-time*a hasi arte, aste barrukoa da nagusitzen den programazio-eredua. Aldiz, kontsumoan, ikusleriaren perfilean eta eskaintzan berezitasunak markatuz asteburua dator

| **Astelehena** | **Asteartea** | **Asteazkena** | **Osteguna** | **Ostirala** | **Larunbata** | **Igandea** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Goiza | Goiza | Goiza | Goiza | Goiza | Goiza | Goiza |
| Bazkalostea | Bazkalostea | Bazkalostea | Bazkalostea | Bazkalostea | Bazkalostea | Bazkalostea |
| Arratsaldea | Arratsaldea | Arratsaldea | Arratsaldea | Arratsaldea | Arratsaldea | Arratsaldea |
| *Prime-time* | *Prime-time* | *Prime-time* | *Prime-time* | *Prime-time* | *Prime-time* | *Prime-time* |
| Goizaldea | Goizaldea | Goizaldea | Goizaldea | Goizaldea | Goizaldea | Goizaldea |

### Eguna

Eskaintzari eta audientziari dagokienez, eguna, astea bezala, oso erreferentzia garrantzitsua da. Astearen kontrara, egunak ikuspegi bertikala du. Telebista-eskaintza orduen arabera garatzen da, beti, eta ikusle-kopuru handia eta audientziaren fideltasuna lortzea ditu helburu.

Eguneko ordu-multzoak, estatu espainiarrean.

| **Ordu-multzoak** | |
|---|---|
| Goiza | 07:30-14:00 |
| Bazkalostea | 14:00-17:00 |
| Arratsaldea | 17:00-20:30 |
| Urrezko ordutegia (*Prime-time*) | 20:30-24:00 |
| Gauerdia | 24:00-02:30 |
| Goizaldea | 02:30-07:30 |

Goiza bi zatitan bana daiteke (GECA, 2003 eta 2004). Lehenean (07:30-9:00), eskaintzari eta lortzen dituen audientzia-kuotari dagokienez, bi genero nagusitzen dira aste barruan: informazioa (albistegiak, bereziki) eta haurrentzako fikzioa (marrazki bizidunak). Informazioaz ari garela, “Telediario matinal” (TVE 1), “Informativos telecinco matinal” (Tele 5) eta “Télématin” (France 2) dira ezagunenak. Astebukaeretan, berez lanegunetan eskaintza oso homogenoa dagoen panoraman, kanal bat bestearen kopia izateko bidean jarri direla dirudi. Larunbatetako eta igandetako eskaintzan, haur eta gazteentzako magazinak dira hobesten direnak. Hala nola, “Club Megatrix” (Antena 3), “TF1 jeunesse” (TF 1), “Zon@ Disney” (TVE 1), “Ça cartoon” (Canal +E) eta Betizu (ETB 1).

Bederatzietatik eta ordu biak artekoan, informazioa formatua aldatu eta magazin bihurtzen da: “Día a día” (Tele 5), “Saber vivir” eta “Por la mañana” (TVE 1) eta “C’est au programme” (France 2). Asteburuetan, haur eta gazteentzako magazinak dira eskaintzan nagusitzen direnak.

Ordu-multzo honen bukaeran (13:00-14:00), gehienetan, serieak, lehiaketa laburrak, deskoneksio informatiboak, sukaldaritza eta, oro har, ordu bietatik aurrerako albistegirako audientzia bultzatuko duten programak pantailaratzen dira (Estatu frantziarrean, teleberri nagusiak, TF 1ekoa eta France 2koa, 13:00etan hasten dira).

Bazkalosteari dagokionez (14:00-17:00), albistegia, lehenengo, eta fikzioa edo barne-produkzioko magazinak, gero, dira genero ugarienak. Albistegiek, ordu biak eta hirurak bitartean, puntuan ala t’erdian hasita, 30 mintuko iraupena gaindituta daukate aspaldi. “Teleberri” (ETB 2; 14:57; 47’) “Telediario 1” (TVE 1: 14:58; 48’), “Antena 3 Noticias 1” (Antena 3: 14:57; 48’) eta “Informativos Telecinco 14:30” (Tele 5: 14:27; 57’) dira arrakastatsuenak.

Horren ostean, esana bezala, Miszelanea generoaren baitako saioak (“Lo que faltaba“ ETB 2; “Aquí hay tomate” Tele 5) edota barne- zein kanpo-produkzioko fikzio seriatua da hobesten dena: “Mi gorda bella” Antena 3n eta “Luna negra” TVE 1en, adibidez.

Jaiegunetan, eskaintzak bi adar izaten ditu: film luzeak eta kirola, bi horien inguruan artikulatzen dira programazio-taula gehienak.

Arratsaldea (17:00-20:30), bestalde, aldaketa sakonak bizi izan dituen ordu-multzoa da. Aspaldikoak dira, haurrei zuzenduriko eskaintzaren garaiak, eskolatik irten ondorengoak. Gaur egun, ETB 1ek bakarrik mantentzen du marrazki bizidunetan oinarrituriko lanegunetako eskaintza: “Betizu”; 18:00-20:30.

Azken denboraldietako parrilak aztertuta, Miszelanean sailka daitezkeen “Sabor a tí” eta “Diario de Patricia” (Antena 3) edo “Esta es mi gente” (ETB 2) eta horiei aurre egin ezinean, alternatiba gisa, aireratutakoak: lehiaketak, fikzio seriatua edo deskoneksioen bidez eskainitako informazio lokala. Kontuan hartu behar da ordutegi-desbedintasun handiak daudela Ipar zein Hego Euskal Herrian ikus daitekeen telebistari dagokionez.

Edozelan ere, gogoan izan, ordutegi honek —eguerdiko albistegi nagusiaren aurretikoaz gertatu bezala— kontsumo-ordu garrantzitsuetarako ate-zaintzailearena jokatzen duela, eta horregatik da azpimarragarria. Ordutegi honi *access prime-time* deitzen zaio, hain zuzen ere, urrezko ordutegira ahalik eta jende gehien garraiatzeko balioa izan behar duelako.

Urrezko ordutegia (*Prime-time*) izenaz ezaguna da, ordu-multzo honetan audientzia gehien pilatzen delako eta bertan jokoan dagoelako publizitate bidezko finantzazioaren zatirik handiena. Albistegiak, 20:30ak eta 21:00ak inguruan hasita, *prime-time*ari hasiera emateaz gain, “eguneroko hitzordua”-ren lana betetzen du, orotariko kanal guztietan gainera. Irekita joko-eremu nagusirako atea, Contreras-ek (2003: 359-383) azpimarratzen duenez, ia kanal guztietan aurki daitezkeen joera batzuk ageri dira, nabarmen:

– telebistagintza pribatuaren etorrerak kanalen arteko lehia eta ikusgarritasunerako bidea zabaldu zuen. Kanal nagusi bat (urte gehienetan TVE 1) eta oso paretsu ari ziren beste bi (Antena 3 eta Tele 5) eta, kasuan kasuko, telebista autonomikoen sendotzea. Gure kasuan, lau nagusienen artean mugitzen da ETB 2.

– hiruzpalau urteko zikloak suma daitezke programazioari dagokionez. Berrikuntzek sortzen duten zirraraten ondoren mantentzen diren zikloak eta programaren ala formatuaren bizialdia bere onenean dagoen bitartean irauten dutenak. Contreras-ek bost epe antzematen ditu telebista-kanal pribatuak abiatu zirenetik:

(a) 1992 artekoa: iraganaren herentzia: *made in Spain* estiloko filmak eta entretenimendua helburu zuten saioak: “El precio justo”, “Videos de primera”, “Un, dos, tres...” etab.;

(b) munduan ari zen joeraren bidetik, *prime-time*aren itxura aldatuko zuten *reality* programen etorrera (1992-1997). Besteak beste: “Quién sabe dónde”, “Lo que necesitas es amor”, “Código uno”, “Misterios sin resolver”;

(c) fikzio lokal seriatua (1993...): aspaldiko “Farmacia de Guardia” eta abarren ostean sorturiko “Hostal Royal Manzanares”, “Médico de familia”, “Periodistas”, “Cuéntame cómo pasó” eta “Ana y los siete” izenekoek audientzia-maila oso altuak eskuratu zituzten;

(d) *Champions League* (1998...): europar-mailako txapelketak futbol-partiden lekua egonkortu eta emisio-leku ia-ia tinkoa eskuratzera eraman zuen;

(e) Teleitxialdia (2000...): lehen belaunaldiko *reality*en ahultzearekin telebistagintzaren aro berri bat zabaldu zen. Bost eredu zenbatu zitezkeen ordurako: gazteen konbibentzia (“Big brother”), superbibentzia (“Supervivientes”), hezkuntza musikala (“Operación Triunfo” eta “Star Academy”), bikoteak (“Temptation Island”, “La casa de tus sueños”) eta famatuak (“Hotel Glam” eta “La isla de los famosos”).

– formatuetan eta edukietan globalizaziorako joera oso markatua da. Oraingoan, gainera, Atlantikoaren bi aldetarako norabidea ikus daiteke: Europako programak AEBn ospetsu egiten direnak eta alderantziz. Kontrajarria izan gabe, gainera, audientziek gero eta gehiago ikusten dituzte lokaltasuna zaintzen duten programak: pertsonaiak, lekuak, istorioak, tratamenduak, hizkuntza...

Estatu espainiarraren kasuan, lehen ikusi dugun modura, *prime time*ari dagokionez, igande gauetik ostegunera bitarteko tartea bere baitan hartuta, albistegiaren ostean fikzio lokal seriatua da gehien garatu dena. Hori bai, telesailek aurrekontuan, erealizazioan, antzesle-kopuruan eta kalitatean eta, bereziki, iraupenean egin dute gora. Betetzen duten denbora-tarteari dagokionez, asko dira ordubetea aspaldi atzean utzi zutenak, besteak beste: “Cuéntame cómo pasó” (TVE 1; 85’), “Ana y los siete” (TVE 1; 84’), “Los Serrano” (Tele 5; 100’), “Hospital Central” (Tele 5; 100’), “7 vidas” (Tele 5; 63’) edota “Un paso adelante”(Antena 3; 100’).

Ostiraletako eta larunbateko urrezko ordutegian, fikzioa, umorea eta prentsa arrosa aitzakia hartuta burutzen diren saioak ateratzen dira garaile.

Gauerdian (24:00-02:30), *late-night show* direlakoak dira kuantitatiboki eta kualitatiboki garrantzi gehien eskuratzen dutenak. “Esta noche cruzamos el Missisipi” (Tele 5) eta “La sonrisa del pelícano” (Antena 3) izenekoen ondoren etorri eta jainkotu den “Crónicas Marcianas” (Tele 5) da aipagarriena. Gainontzeko kanalek *reality*a, prentsa arrosa edo programazio betegarriak erabiltzen dituzte, ikusle-kopuruari dagokionez oso bigarren mailakoak diren orduetan.

Goizaldea (02:30-07:30), fikzioaren zein bestelako saioen errepikapena eta teledendak erruz erakusgarri dituzten orduak izaten dira. Estatu frantziarraren kasuan, kontuan hartu behar da ezen goizeko seietarako ugaritzen hasiak direla informazioa gai nagusitzat duten programak: “Euronews” (France 3), “Télématin” (France 2).

### *3. TELEBISTAGINTZA BEREZITUA*

Telebistagintza tradizionalak —konbentzionala ere deitua izan denak— genero askotatik edaten du bere eskaintza osatzeko. Eguneko programazio-taulan, besteak beste, fikzioa, albistegiak eta kulturari buruzko programak tartekatzen ditu. Kanal bakoitzak definitu duen xede-taldera —oso zabala izaten denez, ia-ia populazio guztia kontuan hartzen du— iristeko, gainera, konpetentziarena baino programazio erakargarriagoa aurkeztu beharra du.
Telebista berezituak, aldiz, genero edo azpigenero bakarrean zentraturiko eskaintza oso espezializatua prestatzen du xede-talde zehatzarengana heltzeko asmoarekin. Gai zehatz baten inguruko eskaintzaren definiziotik edo xede-taldea zein izango den markatzetik hasita, toki berera heltzen da: audientzia potentzial mugatuari eginiko telebista-eskaintzara.

**Orotariko telebistagintza**




**Telebistagintza berezitua**



Telebistagintza berezitua gauzatu ahal izateko, eskaintza tematikoki mugatzea beharrezkoa izaten da. Horretarako, lehenik eta behin, telebistagintzaren testuingurua ondo ezagutzea komeni izaten da eta hortik aurrera kontuan hartzea zeintzuk diren genero arrakastatsuak, horietan zentraturiko espezializaziora jo ahal izateko. Ikus-entzunezko merkatuak sofistikazio-maila altua eta programa-katalogo zabala eskuragarri jartzeko moduan egon beharra du.

Bestalde, telebistagintza berezitua edo tematikoa abian jarri ahal izateko, xede-taldearen definizio zehatzetik hastea komenigarriagoa dela uste duenarentzat, bi abaipuntu aukeran. Bat; kanala sortzeko helburua zein den erabakitzea, esaterako: musika elektronikoa, brikolajea edo beldurrezko zinea gustuko dutenak asetzea, baina baita ere: medikuentzako birziklapenerako tresna izatea, mugaz kanpo bizi diren herrikideak informatuta eduki eta lotura mantentzea, hezkuntza-sistemaren osagarria izatea edo dena-delakoa. Bi; nortzuengana heldu nahi dugun markatzerakoan, kontuan hartu beharko ditugu pertsona horien izaera sozio-demografikoa, kontsumo-portaerak, telebistazaletasuna, bizilekua eta abar. Izan ere, badira jende-multzo batzuk interesgarriak suerta daitezkeenak: politikoki, kulturalki edo kontsumo, adin, sexu aldetik eta, kontrara, beste batzuk ez.

### *3.1. Berezitasuna eraikiz*

Telebistagintza berezituak espezializaziorako bi etorbide erabiltzen ditu. Lehena, tematikoa: gai baten inguruan programazio-eskaintza osoa egituratzea. Modu honetara, programa desberdinak iraupenez, tratamenduz edota formatuz askotarikoak izaten dira, eta edukia izaten dute elementu bateragarri. Berezitasuna gaian oinarritzen duten kanal hauen artean daude: kirolari, haur/gazteei, zientziari, informazioari, modari edota historiari buruzkoak, esaterako.

Bestalde, formalagoak diren osagarrien bidez definitzen diren kanal berezituak ere badaude. Contreras-en (2001: 223) esanetan, “formatuan” oinarritzen diren kanal horiek genero bereko programak izanik, egituraketa edota edukiak aurkezteko moduetan gauzatzen dute berezitasuna. Aipagarriak dira, beste batzuen artean, bideo-klipei, zuri-beltzezko filmei, burtsei eta informazio ekonomikoari, telesailei eta publizitateari emandako kanalak.

Kasu batera zein bestera, badira telebistagintza berezituaren programazio-taula gauzatzerakoan gogoratu beharreko ideia batzuk:

- telebista-kanalak produktu gisa ondo definitua eta nortasun propioz jantzia joan behar du, telebistagintzaren merkatu hain zabalean eta lehiakorrean ezinbestekoa baita eskaintza bakoitzaren ñabardurak azpimarratzea;
- barne- zein kanpo-komunikazioari buruzko politika landua ezinbestekoa da (barne-antolaketa eta sailen arteko lotura eta, baita ere, promozioa, bazkidetza eta marka-irudia definitzerakoan);

– “herri-dizdira” efektua pasatu eta gero, kalitatea izaten da harpidedunen balorazio onerako elementurik garrantzitsuena;
– telebistagintza berezituan “bezero” kontzeptua alboratu egiten da, eta “bazkide” irudia da lantzen dena;
– “zerbitzu” gehigarriak, hau da, sozialki estimatuak eta pertsonalizatuak jasotzen diren pertzeptzioa zabalduta dago harpidedunen artea;
– kanal berezituen harpidedunek telebista konbentzionala ikusten segitzen dute (denboraren %60, gutxi gorabehera); kontsumo espezializatua dietaren osagarria da, baina ez bakarra, momentuz ezta nagusiena ere.

Telebistagintza berezituaren programazio-taula eraikitzerakoan, kontsumo handieneko ordutegiaren definizioa eta kudeaketa, eta gainontzeko orduetan estreinuko eta errepikatutako saioen konbinazioa ona dira arrakastarako giltzarri.

Telebista berezituaren audientziak gainontzeko ikus-entzuleen kontsumo-ordutegi berbera dauka. Hala ere, programatzailearentzako beharrezkoa da ondo aztertzea zein egun eta zer ordu-multzo dituen gustukoago eskaintza berezituaz gozatzeko. TNS (2003: 80-88) audientzia-ikerketa enpresaren esanetan, antzekoa da telebista konbentzionalaren eta “digitala” (plataforma digitalak) deiturikoaren portaera. Hala ere, aipatzekoa da Estatu espainiarreko telebista berezituaren adibide aproposa izan daitezkeen digital horien ikusleriak udan (uztailean eta irailean, baina bereziki abuztuan) gora egiten duela kontsumoan, astebukaeretan denbora gehiago dedikatzen zaiola telebistagintza digitalari eta proportzionalki goizetan eta arratsaldeetan eskaintza digitalak jarraitzaile gehiago dituela *prime-time*an baino.

Telebistagintza berezituaren programazio-taula eraikitzerakoan, multzoa erabiltzen da patroi gisa. Multzo nagusia eguneko estreinuko programek osatzen dute eta, gainontzekoetan, aldez aurretik emitituriko programak erabiltzen dira lehengai modura. Estreinuko multzoa (3 ordukoa kasu batzuetan, baina kanal txikienetan ordu bete eskasekoa) audientzia gehieneko orduan emititzen da, eta gainontzekoak beste emisio-ordu guztiak betez. Hori bai, estreinuko multzo hori ondoko egunetan errepikatuko denean, beti ordutegi desberdinean aireratuko da. Ikusle berak bere ohiko ordutegian oso gutxitan egingo du topo programazio berberarekin, “mila aldiz” errepikatzen den kanalaren bezeroa izatearen inpresioa uxatuz. Eta, aldi berean, zerbitzu modura ulerturiko errepikapenen kudeaketa —multidifusioa izena ere erabiltzen da sarritan— on bat eginez gero, pertsonalizaturiko kanalaren irudia landuko du.

Azkenik, ikus-entzulearen “lana” errazteko eta kanalak bere bezeriarekiko harreman estua mantentzeko, telebista berezitu askok programazioa dakarten aldizkariak argitaratzen dituzte, autopromozio-kanpaina iraunkorrak dauzkate edota programa-gida elektronikoak (EPG) erabiltzen dituzte.

## *4. BIBLIOGRAFIA*


Blum, R.A. eta Lindheim, R.D. (1989*): Programación de las cadenas de televisión en horario de mácima audiencia*, IORTV, Madril.

Contreras, J. M. (2003): "Investigación: Los contenidos televisivos en España en el horario de máxima audiencia", Universidad Rey Juan Carlos. [Mimeografiatua].

———— eta Palacio, M. (2001): *La programación televisiva*, Síntesis, Madril.

Cortés, J. Á. (1999): *La estrategia de la seducción*, Eunsa, Iruñea.

Dagnaud, M. (1992): "L'âme des chaines", *Dossiers de l'audiovisuel*, **41**, 13.

Eastman, S. T. eta Fergurson, D. A. (1997*): Broadcast/Cable Programming. Strategies and Practices,* Wadsworth, Belmont.

GECA (2002): *El anuario de la televisión-2003*, GECA, Madril.

————, (2004): *El anuario de la televisión-2004*, GECA, Madril.

Gómez-Escalonilla, G. (1998): "La programación Televisiva en España. Estudio de las parrillas de programación televisiva española desde 1956 a 1996", Doktorego-tesia, Universidad Complutense de Madrid.

————, (2003*): Programar televisión. Análisis de los primeros cuarenta años de programación televisiva en España*, Universidad Rey Juan Carlos, Madril.

Le Diberder, A. eta Coste-Cerdan, N. (1990): *Romper las cadenas. Introducción a la post-televisión*, Gustavo Gili, Bartzelona.

Marketing Directo (2004): "La inversión publicitaria en España" <http://www.marketingdirecto.com/estudios/Inversion_Publi_Infoadex03.ppt>.

McCavitt, W.E. eta Pringle, P.K. (1986): *Electronic Media Management*, Focal Press, Boston.

Palacio, M. (1989): "Estructura de la programación en Radio y Televisión", Universidad Complutense de Madrid, Madril. [Mimeografiatua].

Sánchez-Tabernero, A. (1997): "Programación", in Sánchez-Tabernero, A. (arg.), *Estrategias de marketing de las empresas de televisión en España*, Eunsa, Iruñea, 51-94.

TNS (2004): *Anuario de Audiencias de Televisión 2003*, Sofres AM, Madril.

Vaca, R. (1997*): Quién manda en el mando. Comportamientos de los españoles ante la televisión*, Visor, Madril.

Vane, E.T. eta Gross, L.S. (1994): *Programming for TV, Radio and Cable*, Focal Press, Boston.

## *5. GEHIGARRIAK*

### *INTERESEKO WEBGUNEAK*

GECA (Gabinete de Estudios de Comunicación Audiovisual Consultores) <http://www.geca.es>
